

### **Testuaren analisi teorikoa. Adibide bat.**

Gonzalez Garai, Gaztañaga eta Iriondo egileek aipatzen duten legez, Antropologia izaera orokorra eta erkatzailea du, hau da, disziplina honek ikuspegi holistikoa mantentzen du beti.

Antropologia eta Gizarte Langintza ikasgaiak ikasi dugun bezala, Antropologiak iraganeko eta egungo kulturak deskribatzen eta aztertzen ditu. Horretarako erabiltzen duen metodorik aipagarriena etnografia da. Etnografia kulturen inguruko lehen eskuko deskribapen sistematikoa egitean datza horren barruan elkarrizketak, behaketa partehartzailea edo landa lana bezalako teknikak erabiltzen direlarik.

Antropologia disziplinak beste gizarte zientzietatik bereizten duen aspekturik aipagarriena, testuan aipatzen den bezala, bere izaera holistikoa da. Kulturak holistikoki aztertzea bere osotasunean kontutan hartzea inplikatzeko du; fenomeno kultural guztien elkareraginak aztertzea, alegia.

Holismoaz gain, badira Antropologia bereizten dituzten beste ezaugarriak hala nola, disziplina empirikoa dela (errealitatearen behaketan oinarritzen dela), erkatzailea dela (gizatalde ezberdinen ezaugarri kulturalak erkatzen dituela) eta transkulturala dela (aniztasun kulturalari erreparatzen diola).

Ondorioz, Antropologiak kulturen ezagutzarako ezinbesteko disziplina da. Gizarte langileok kulturkide ezberdinekin lan egingo dugun heinean, antropologiaren ekarpen teoriko, metodologiko eta etikoak kontutan izan beharko ditugu. Errealitate soziala modu holistiko batean ulertzeak, egileak testuan bertan aipatzen duen bezala, "herri eta kultura guztiek garrantzia berdina dutela" konprenitzen lagunduko digu.